



ERABAKIA, JAURLARITZAREN KONTSEILUARENA, HEZKUNTZA-ITUNA INDARREAN DUTEN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO IKASTETXEEI ZUZENEKO DIRULAGUNTZAK EMATEKO DENA, 2021EKO ABENDUAREN 28AN ONARTUTAKO EUSKARAZKO HEZKUNTZA-EDUKI DIGITALEN ZUZKIDURA FINANTZATZEKO.

Hezkuntza Saila prestatzen ari den 2022-2024 aldirako Euskal Hezkuntza Sistemaren Eraldaketa Digitaleko Planak, bere planteamenduan, teknologia digitalak sartzearekin batera, hezkuntza-maila guztietarako material didaktiko digitalak ekoiztea aurreikusten du, irakaskuntza- eta ikaskuntza-praktikak hobetzeko eta dibertsifikatzeko eta gaitasun digitalak garatzeko duen ahalmena aprobetxatuz, bai eta esparru akademikorako eduki digitalak sustatzea ere, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen arloarekin batera, erabilera orokorreko hezkuntza-plataformetan euskararen presentzia bultzatu eta bermatzeko.

Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak hezkuntza-ingurunean txertatzea testuinguru hori eraldatzen ari da. Tresnez gain, honako hauek ere interesatzen dira bereziki: horrelako baliabideak erabiltzeak ikastetxearen testuinguruaren barruko plangintzan, antolaketan, koordinazioan, lankidetzan eta komunikazioan sor ditzakeen optimizazio- eta berrikuntza-prozesuak; ikasgelan gertatzen diren irakaskuntza-ikaskuntza prozesuak; eta horien bidez lortutako emaitzak. Hain zuzen ere, eduki digitalen presentziak eta erabilerak, oinarritzko beste elementu batzuekin batera, egitura eta edukiak emango dizkiete IKTen bidez garatu beharreko jardueri.

Testuinguru hori aintzat hartuta, 2021eko irailaren 28an, Gobernu Kontseiluak Inbertsio Programa Berezi bat abian jartzea onartu zuen, 250 milioi eurokoa, eta, programa horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei ikasleentzako euskarazko eduki digitalak eskaintzetik eratorritako gastuak finantzatzeko beharrezko kreditu-zuzkidura ere sartzen da.

Hezkuntza Sistema Digitalizatzeko Planaren esparruan Inbertsioen Ezohiko Programa hori gauzatzeko, Hezkuntza Sailak eduki digitalak euskal hezkuntza-sare osoaren eskura jartzen lagundu nahi du. Horrela, bi sareen artean erabilgarri dagoen aurrekontu-kreditua sistema osoan duten ordezkartzaileen arabera banatu ondoren, eta bi sareotan esleitzeko irizpide berberak ezarrita, titulartasun publikoko ikastetxeen kontzeptu horrengatiko finantzaketa izapidetu ondoren, une honetan itunpeko ikastetxeentzako laguntza artikulatu behar da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.7 artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo da. Artikulu horren arabera, laguntzak edo dirulaguntzak zuzenean ematea Jaurlaritzaren eskumena izango da, interesa duen saileko sailburuaren proposamenez. Gainera, zuzeneko dirulaguntza horiek salbuespenezkoak izango dira, eta justifikazio arrazoituaren eta memoria dokumentalaren bidez egiaztatu beharko dira dirulaguntza justifikatzen duten interes publiko, sozial, ekonomiko edo humanitarioko arrazoiak.

Horrela, zuzeneko dirulaguntza hauetan, zenbatekoa zehazteko, sare publikoko ikastetxeei esleitutako esleipen-irizpide berberak erabili dira: 10 € eduki bakoitzeko, gehienez 30 €, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetak eta Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 4.era ikasle bakoitzeko.

Azaldutakoagatik guztiagatik, bidezkoa da erabaki-proposamen hau Gobernu Kontseiluari aurkeztea, onar dezan:

ERABAKIA

LEHENENGOA.- Xedea eta helburua.

1.- Erabaki honen xedea da I. Eranskinean zerrendatutako hezkuntza-ituna duten Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxeei dirulaguntzak ematea, salbuespenezko izaerarekin eta erabaki honetan ezarritako klausulen arabera.

2.- Dirulaguntzen helburua da argitaletxeei euskarazko liburu digitalak erabiltzeko eskubideen (erabilera-lizentziak) erosketak finantzatzen laguntzea, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetan erabiltzeko.

3.- Hezkuntza-liburu digitalak baliabide eta material interaktiboak dira, ikasturtearen edo irakasgaiaren curriculumean zehaztutako helburuekin eta dagozkien ebaluazio-irizpideekin lerrokatuta, elementu ikonikoak, ikusizkoak, entzunezkoak eta ikus-entzunezkoak barne hartzen dituztenak, irakasleak bere irakaskuntza-beharren arabera erabil ditzan eta ikasleari informazioa modu sortzaile, erakargarri eta kolaboratiboan aztertze eta manipulatzeko aukera ematen diotenak.

BIGARRENA.- Onuradunak eta dirulaguntzaren xedea.

Dirulaguntza honen onuradun izango dira I. Eranskineko ikastetxe pribatuaren titular diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta 2021-2022 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoan irakaskuntza arautu hauek itunduta badituzte: Lehen Hezkuntzako 5. eta 6.a eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

HIRUGARRENA. - Dirulaguntzaren zenbatekoa.

1.- Erabaki honen xede diren laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak bi milioi eta hogeita bost mila berrehun eta berrogei euro (2.025.240,00 €) dira osora, eta EAEko Aurrekontu Orokorretan horretarako izendatutako partidaren kontura finantzatuko dira.

Dirulaguntzaren zenbatekoa Zuzendaritzaren aurrekontu-aplikazioetako kontabilitatean egotziko da (21), Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren 42221 programa, 754.91 kontzeptua.

2.- Honela kalkulatu da liburu digitalak finantzatzeko zenbatekoa: 10 € liburu digital bakoitzeko, gehienez 30 €, Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik 4.era ikastetxe bakoitzean eskolatutako ikasle bakoitzeko.

I. Eranskinean, ikastetxe bakoitzari egindako diru-esleipena banakatzen da.

LAUGARRENA. – Diruz lagun daitezkeen gastuen tipologia.

1.- Erabaki honetan aurreikusitako ondorioetarako, honako gastu hauek dira emandako dirulaguntzaren xede:

Lizentzia eskuratzeko kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

2.- Diruz lagundutako liburu digitalak 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetan erabili ahal izango dira.

3. – Liburu digitalak, Heziberri 2020 Planaren hezkuntza-eredu pedagogikora eta plan horren barruan onartutako curriculum-dekretuetara egokitu beharko dira: 236/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena; 237/2015 Dekretua, abenduaren 22koa, Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.

Beraz, hezkuntza-eredu pedagogikoarekiko nahitaezko koherentziari euste aldera, ezaugarri hauek izan beharko dituzte:

- a) Ikasleen irteera-profilean zehaztutako oinarrizko konpetentziak lortzera bideratuta egotea.
- b) Ikasleen adinetara egokitutako zorrotasun zientifikora eta hizkuntza-egokitasunera eta 236/2015, 237/2015 eta 127/2016 Dekretuetan araututako curriculumera egokitu beharko dira. Lege-ordenamenduko printzipioak, balioak, askatasunak eta betebeharrak ere agertu eta sustatu behar dira, eta diseinu unibertsalaren eta irisgarritasunaren ezaugarriak bete.
- c) Irisgarriak izan behar dute, bai desgaitasun fisiko, sentsozial edo intelektualen bat duten ikasleentzat, bai ikasteko beste zailtasun batzuk dituztenentzat.
- d) Hizkuntza ez da modu sexistan erabili behar, eta irudietan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua eta estereotipatu gabekoa bermatu behar da.
- e) Dibertsitate familiarra eta afektibo-sexuala agertu behar da, baita gainerako errealitate kulturalak eta etnikoak ere.

4.- Laguntza honen xede diren liburu digitalek jabetza intelektualari, egile-eskubideei eta lege-gordailuari dagozkien lege-baldintzak bete beharko dituzte. Proiektua egiteko erabilitako irudiak, soinuak, testuak edo beste edozein multimedia-objektu, azken proiektuaren parte badira, eskatzailearenak izango dira, edo egile-eskubideen eta banaketaren arloan indarrean dagoen araudia beteko dute.

5.- Diruz lagunduko dira 2021eko ekitaldian egindako gastuak. IV. Eranskina aurkeztu ondoren ordaindu beharko dira, hamargarren puntuan ezarritakoaren arabera. Alde horretatik, diruz lagundutako gastutzat hartuko da benetan ordaindu dena, gastu mota bakoitzerako emandako zenbatekoaren mugarekin.

Epez kanpo egindako gastuak ez dira diruz laguntzeko moduko gastutzat hartuko.

6.- Ikastetxeak hala aginduta, familiek eskuratu badituzte lizentziak, ikastetxeak deialdi honen onuradun izateko aukera izango du, betiere modu frogagarrian egiaztatzen badu familiei itzuli dizkietela ordaindutako zenbatekoak eta gailuen titulartasuna. Horretarako,

IV. eranskinarekin batera, ikasleen zerrenda/faktura-zenbakia/banakako ordainketa-transferentzia aurkeztu beharko du, ikastetxeak dirua itzuli duela egiaztatzen duen agiriarekin batera.

BOSGARRENA. - Izapidetze elektronikoa.

1.- Emandako dirulaguntzen onuradunek Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoen bitarteko elektronikoak erabiliz egingo dituzte kontsultak eta dirulaguntza horiek kudeatzeko izapide guztiak.

2.- Izapidetze elektronikoa arautzen dute, batetik, otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak – Administrazio Elektronikoari buruzkoak– eta, bestetik, Informatika eta Telekomunikazioetako zuzendaritza 2006ko otsailaren 9an emandako Ebazpenak, hain zuzen ere, Informatika eta E-Administrazioarako Plataforma Teknologikoa -PLATEA-onartzen duenak.

3.- Justifikazio-izapideak bide elektronikoz nola egin, zer dokumentazio-eredu erantsi behar diren eta horren inguruko gainerako argibideak honako helbide elektroniko honetan daude eskuragarri:

<https://www.euskadi.eus/servicios/1209201>

4.- Gainerako izapideak, egonez gero, Nire karpeta atalaren bidez egin beharko dira, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/mi-carpeta/web01-sede/es/>

SEIGARRENA. - Emateko prozedura eta organo eskudunak.

1.- Erabaki hau aplikatuz, dirulaguntza hauek zuzenean ematen zaizkie I. Eranskinean zerrendatutako pertsona fisiko edo juridiko guztiei.

2. Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritza izango da dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

3.- Hezkuntza Sailak banan-banan jakinaraziko du laguntza emateko erabakia, ikastetxeko kontu ofizialera mezu elektroniko bat bidaliz.

4.- Onuradunak 10 egun balioduneko epea izango du, jakinarazpenaren biharamunetik zenbatzen hasita, emandako laguntza onartzeko edo ukatzeko. Epe hori igaro eta kontrakorik adierazi ez bada, laguntza onartu dela ulertuko da.

ZAZPIGARRENA. - Bateragarritasun-araubidea.

Emandako dirulaguntzak bateragarriak dira helburu bererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste batzuekin, betiere gainfinantzaziorik eragiten ez badute. Hala gertatuz gero, beste dirulaguntza edo laguntza batzuk jaso direla jakinarazi beharko da.

Diruz lagundutako gastua aldi berean finantzatuz gero, diruz lagundutako jardueraren kostuaren gainean lortutako soberakina itzuli beharko da, eta dagokion berandutze-interesa ere eskatuko da. (Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra, 37.3)

ZORTZIGARREN. - Ordainketak.

Ordainketa bakarra egingo da, laguntzaren xede den gastuaren justifikazioa egiaztatu ondoren.

BEDERATZIGARRENA. - Justifikazioa.

1. – Erabaki honen bidez emandako dirulaguntzaren onuradunek, I. Eranskinean zerrendatutakoek, modu telematikoan aurkeztu beharko dute, 2022ko urtarrilaren 1etik 30era bitartean, Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan, <https://www.euskadi.eus/servicios/1209201> helbidearen bidez, honako justifikazio-agiri hauek, formatu elektronikoan edo kopia digitalizatueta:

1.- IV. Eranskineko txantiloia beteta, 2021eko ekitaldian egindako erosketen gastu-fakturekin batera.

2.- Azalpen-memoria, onuradunak edo haren legezko ordezkariak eskuratu eta sinatutako lizentzia-mota bakoitzeko. Memoria horretan, hauek adieraziko dira: eskuratutako lizentzia, haren materiala, zein enpresari eskuratu zaion, ikasle erabiltzaileen kopurua eta zer irakaskuntza-mailatarako den (II. Eranskina).

3.- III. Eranskineko txantiloia betea, honako alderdi hauen erantzukizunpeko adierazpenari buruzkoa:

- i. Laguntza honen xedeak jabetza intelektualari, egile-eskubideei eta lege-gordailuari dagozkien legezko baldintzak betetzen ditu, eta proiektua egiteko erabilitako irudiak, soinuak, testuak edo beste edozein multimedia-objektu, azken proiektuaren zati badira, eskatzailearenak izango dira, edo egile-eskubideen eta banaketaren arloan indarrean dagoen araudia beteko dute.
- ii. Informazioa, xede bera duten eta bestelako administrazio edo erakunde publiko zein pribatuei eskatu zaizkien eta, hala badagokio, haietatik jaso diren dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideei buruzkoa, eta halakorik jaso badute, zenbatekoari eta dirulaguntza eman duen erakundearen izenari buruzkoa, bai eta gastu horrek familiengan eraginik izan ez duelako informazioa ere.
- iii. Onuradun izateko baldintzak betetzen ditu, deialdi honen arabera.
- iv. Erakundea edo pertsona ez dago Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko 2. eta 3. puntuetan aurreikusitako debeku-egoeretan, dirulaguntzen onuradun izateko.
- v. Ez dauka epai irmo bidez ezarritako zigor- edo administrazio-zehapenik, dirulaguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galarazten dionik, eta ez dauka horretarako ezgaitzen duen legezko debekurik.
- vi. Ez dago sartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren organismo autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo dirulaguntzak direla-eta hasitako itzulketa- edo zehapen-prozeduraren batean.

4- Justifikazioa aurkeztuz gero, eskatzaileak baimena emango dio organo emaileari zuzenean egiazta dezan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela, HAMARGARREN artikuluan ezarritakoaren arabera.

2.- Horrez gain, laguntzaren ikastetxe onuradunak aukera eman beharko dio organo kudeatzaileari laguntzaren xede den material digitala bistaratzeko.

3.- Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritzak egokitzen jotzen dituen eta dirulaguntza behar bezala aplikatu dela egiaztatzeko aukera ematen duten frogagiriak egiaztatuko ditu diruz lagundutako jardueraren guztizko zenbatekoari dagokionez, eta onuradunari eskatu ahal izango dio hasieran eskatu ez diren frogagiriak aurkezteko, zeinak zaintzapean eta eskura eduki beharko baititu.

4.- Halaber, ezarritako justifikazio-epea igaro eta justifikaziorik aurkeztu ez bada, administrazio-organoko eskudunak onuradunari eskatuko dio hamabost eguneko epe luzaezinean aurkezteko, apartatu honetan aurreikusitako ondorioetarako. Eskatutako dokumentazioa aurkezten ez bada, itzulketa-prozedura hasiko da, justifikatzeko betebeharra ez betetzeagatik.

5.- Halaber, aurkeztutako justifikazioaren ondorioz egiaztatzen bada dirulaguntzak benetan egindako gastuak gainditzen dituela, dirua itzultzeko egoki den prozedura abiaraziko da.

HAMARGARRENA. – Onuradunen betebeharrak

1.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

Laguntzen onuradun diren erakunde edo pertsona fisikoek zerga-betebeharrak bete dituztela automatikoki egiaztatuko du organo kudeatzaileak, eta horretarako ez da zertan eskatzaileen baimenik behar izango, Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretua aplikatuz.

Onuradunak berariaz egin diezaioke uko baimen horri, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera. Halaber, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari eta egiaztatzeari dagokionez, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren 18., 19. eta 22. artikuluetan ezarritakoa hartuko da kontuan.

Onuradunak uko egiten badio baimen horri, zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak aurkeztu beharko ditu.

2.- Onuradunek berehala jakinarazi beharko diote Hezkuntza Ikaskuntza eta Berrikuntzako Zuzendaritzari dirulaguntza emateko baldintzetan izandako edozein aldaketa. Aldaketa horien berri ez ematea nahikoa arrazoi izango da laguntza errebokatzeko.

3.- Laguntza zertarako eman den, hartarako erabili beharko da, ez beste ezertarako.



4.– Era berean, dirulaguntza ematen duen administrazioak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak egiten dituzten egiaztapen-jarduketan eta Administrazioaren Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten dituen kontrol-jarduketan mende jarri beharko du dirulaguntzaren onuradunak, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, sail eskudunaren bitartez, auditoretzak egin ahal izango ditu ikastetxeetan, emandako datuak egiaztatzeko.

HAMAIKAGARRENA.. - Dirulaguntza emateko erabakiaren aldaketa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, nolanahi ere, aldi berean beste ekarpen batzuk lortzen badira arauetan baimendutako kasuetatik kanpo, dirulaguntza emateko erabakia aldatu ahal izango da, dirulaguntzei buruzko legerian ezarritako baldintzetan.

HAMABIGARRENA.. - Laguntza itzultzea.

1. Erabaki honetan emandako dirulaguntza jasotzeko ezarritako edozein baldintza edo betebeharrak betetzen ez badira, edo azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan ezarritako kasuren bat gertatzen bada (besteak beste, laguntza ez erabiltzea diruz lagundu daitezkeen gastuetarako), arrazoi nahikoa izango da laguntza kobratzeko eskubidea galdu dela eta/edo itzuli behar dela erabakitzeko, lege horretan ezarritako prozedurarekin bat etorritik.

2.- Laguntza itzultzeko, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 42. artikuluan horretarako ezarritako prozedurari jarraituko zaio, bidezkoak diren gainerako ekintzak alde batera utzi gabe.

BIDAL BEKIO GOBERNU KONTSEILUARI

HEZKUNTZAKO SAILBURUA

Sin.: Jokin Bildarratz Sorron